

5. GILTZURRUNEKO GUTXIEGITASUN KRONIKOA DAUKAN PAZIENTEAREN TRATAMENDU DIETETIKOA PRESTATZEA

a. **Praktikaren helburua:** giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa dialisiarekin ez tratatua duen pazientearentzat tratamendu dietetikoaren prestatzea. Tratamendu dietetikoaren oinarria energia, proteina, fosforo, sodio eta potasioaren ingestioak kontrolatzea da.

b. **Materiala:** elikagaien konposizio taulak, ordenagailua, excel programa

c. **Prozedura:**

- Pazientearen gastu energetikoa kalkulatu pisua, tailua eta adina kontutan hartuz

Oinarrizko metabolismoa: Harris-Benedict-en ekuazioa

Emakumeak, $OM = 655 + (9.56 \times P, \text{kg}) + (1.85 \times T, \text{cm}) - (4.68 \times \text{Adina, urte})$

Gizonak, $OM = 66.5 + (13.75 \times P, \text{kg}) + (5.0 \times T, \text{cm}) - (6.78 \times \text{Adina})$

Elikagaien efektu termogenikoa: OMren %10

Jarduera fisikoaren gastua:

1. Taula

	Jarduera faktorea (x OM)
Atsedenean	1.2
Oso arina	
Gizonak	1.3
Emakumeak	1.3
Arina	
Gizonak	1.6
Emakumeak	1.5
Ertaina	
Gizonak	1.7
Emakumeak	1.6
Altua	
Gizonak	2.1
Emakumeak	1.9
Trinkoa	
Gizonak	2.4
Emakumeak	2.2

- Proteinaren ekarpen dietetikoaren kalkulazioa glomeruloko iragazte tasa kontutan hartuz.
- Dietaren energia ez-proteikoa kalkulatu eta karbohidrato eta lipidoen banaketa proposatu

Energia ez-proteikoa (kcal): _____

Karbohidratoak: % ____, Lipidoak: % _____

- Fosforo (>200-100 mg/100g elikagaia) eta potasioan (>150-50mg/100g elikagaia) aberatsak diren elikagaiak identifikatu eta elikagai ez-gomendatuen zerrenda prestatu.
- Dieta jarraitzeko jarraibideak prestatu: potasio ekarpena urritzeko sukaldaritza teknikak aipatu.
- Emaitzen aurkezpena

Izena:	Abizenak:	
Adina:	Sexua:	
Pisua (kg):	Tailua (cm):	GMI (kg/m ²):
GIT (ml/min):		
Jarduera fisikoa:	Jarduera fisikoaren faktorea:	
Oinarrizko metabolismoa (kcal/egun):		
Beharizan energetikoak (kcal/egun):		
Tratamendu dietetikoak:		
Energia (kcal):		
Karbohidratoak (%):	Lipidoak (%):	Proteinak (g):
Gatza (g):	Fosforoa (mg):	Potasioa (mg):
Dietaren manuala:		
3. Taula + Jarraibideak dieta jarraitzeko + Elikagai ez-gomendatuen zerrenda		

DATUAK:**IZAN ABIZENAK:** IMANOL SÁNCHEZ**JAIOTZE DATA:** 12.05.1962**Lanbidea:** bajaran dago.

Giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa dauka.

DATU ANTROPOMETRIKOAK

Pisua: 62 kg, Tailua: 168 cm; Gerri-perimetroa: 90 cm, Aldaka-perimetroa: 95 cm.

Presio sistolikoa: 150 mm Hg; Presio diastolikoa: 95 mm Hg.

DATU BIOKIMIKOAK:Kolesterola: 245 mg/dL; LDL-kolesterola: 165 mg/dL; HDL-kolesterola: 30 mg/dL;
Triglizeridoak: 195 mg/dL, Glukosa: 85 mg/dL.

Hiperfosforemia eta hiperpotasemia dauka. Giltzurruneko iragazte tasa: 30 ml/min.

Oso gutxi ibiltzen du, ia egun guztia eserita dago.